

**04/N ZIRKULARRA**  
**2017-2018**

**ABSOLUTU ETA JUNIOR MAILETAKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA**  
**NEGUA 2017-2018**

1. DATA: 2018ko martxoak 17 eta 18
2. LEKUA: Ciudad Deportiva Amaya (Iruñea)
3. ORDUTEGIAK: Erabakitzeke
4. IGERILEKUA: 50 metro eta 8 kale, kronometraje elektronikoarekin
5. PROBEN PROGRAMA

<b>1. saioa</b> <b>(2017/03/17)</b>			
1.-	200	Bular-estiloa	Emakumeak
2.-	200	Bizkar-estiloa	Gizonak
3.-	100	Libre	Emakumeak
4.-	100	Tximeleta	Gizonak
5.-	200	Tximeleta	Emakumeak
6.-	1500	Libre	Gizonak
7.-	1500	Libre	Emakumeak
8.-	50	Bizkar-estiloa	Emakumeak
9.-	50	Libre	Gizonak
10.-	4 x 200	Libre	Emakumeak

<b>2. Saioa</b> <b>(2017/03/17)</b>			
11.-	4 x 50	Libre	Gizonak
12.-	4 x 50	Libre	Emakumeak
13.-	200	Bular-estiloa	Gizonak
14.-	200	Bizkar-estiloa	Emakumeak
15.-	100	Libre	Gizonak
16.-	100	Tximeleta	Emakumeak
17.-	200	Tximeleta	Gizonak
18.-	800	Libre	Emakumeak
19.-	800	Libre	Gizonak
20.-	50	Bizkar-estiloa	Gizonak
21.-	50	Libre	Emakumeak
22.-	4 x 200	Libre	Gizonak

<b>3. Saioa</b> <b>(2017/02/26)</b>			
23.-	4 x 50	4 Estiloak	Emakumeak
24.-	4 x 50	4 Estiloak	Gizonak
25.-	200	Libre	Emakumeak
26.-	200	4 Estiloak	Gizonak
27.-	100	Bizkar-estiloa	Emakumeak
28.-	100	Bular-estiloa	Gizonak
29.-	400	4 Estiloak	Emakumeak
30.-	400	Libre	Gizonak
31.-	50	Bular-estiloa	Emakumeak
32.-	50	Tximeleta	Gizonak
33.-	4 x 100	Libre	Emakumeak
34.-	4 x 100	Libre	Gizonak

<b>4. Saioa</b> <b>(2017/02/26)</b>			
35.-	200	Libre	Gizonak
36.-	200	4 Estiloak	Emakumeak
37.-	100	Bizkar-estiloa	Gizonak
38.-	100	Bular-estiloa	Emakumeak
39.-	400	4 Estiloak	Gizonak
40.-	400	Libre	Emakumeak
41.-	50	Bular-estiloa	Gizonak
42.-	50	Tximeleta	Emakumeak
43.-	4 x 100	4 Estiloak	Gizonak
44.-	4 x 100	4 Estiloak	Emakumeak

**6. PARTE-HARTZEA**

6.1. MAILAK:

	<b>GIZONAK</b>	<b>EMAKUMEAK</b>
<b>ABSOLUTUAK</b>	Adin guztiak	Adin guztiak
<b>JUNIOR</b>	2000 eta 2001	2001 eta 2002

6.2. Denboraldi honetan federazioko lizentzia (EIF-FVN eta FNN-NIF) eta gutxieneko marka duten igerilariak (03/N zirkularra) soilik hartu dezakete parte, Junior eta Absolutu mailakoak. "Promesa" mailako igerilariak parte hartu ahal izango dute bere mailako marka minimoa baieztatzen badute, baina ez da maila horretako sailkapenik izango.

6.3. EIF-FVN eta FNN-NIK federazioek bertako kide ez diren klubak parte-hartzeari baietz esan diezaike.

6.4. Parte-hartzeko markei baliagarritasuna emango zaie 2017ko otsailaren 25etik aurrera.

6.5. Erreleboetako marka baliogarriak izango dira txapelketetan lortutakoak eta baita erreleboko kideen marken batuketa. Azken kasu honetan, izen-ematean igerilari bakoitzaren izena agertu beharko da, eta baita bere marka eta lortu zueneko data.

6.6. Klub bakoitzak nahi beste igerilari aurkeztu ditzake proba bakoitzean.

6.7. Igerilari bakoitzak banakako LAU probetan parte har dezake eta erreleboko guztietan. Gizonezkoen 800 metro libreetako proban parte hartzeko igerilariak 1500 metro libre edo 400 metro libreetako marka minimoa baieztatu beharko dute.

Emakumezkoen 1500 metro libreetako proban parte hartzeko igerilariak 800 metro libre edo 400 metro libreetako marka minimoa baieztatu beharko dute.

Gizonezkoen 800 metro libreetako eta emakumezkoen 1500 metro libreetako probetan bakarrik izen-emate denborarik onena duten ZORTZI igerilariak har dezakete parte. Proba hauetarako izena eman eta zortzi onenen artean sartzen ez diren igerilariak beste probaren batean eman dezakete izena, beti ere dagokion gutxieneko marka baieztatuta, erreklamazio epean. Horretarako, bere klubak, bere lurraldeko federazioarekin kontaktuan jarri beharko da eta izen-emate berria egin.

6.8. Klub bakoitzak talde bat aurkeztu ahal izango du erreleboetako proba bakoitzeko, eta jarritako edozein adinekoak izan daitezke taldekideak.

## **7. IZENEMATEAK**

7.1. Klubek bere Federazioari (Euskadikoa edo Nafarroakoa, egokitzen zaienaren arabera), bere Federazioak emandako ohiko formatua erabiliz.

7.2. Bakarrik erreleboetako probetan parte hartzen duten igerilariak, zerrenda nominal indibidualetan egon behar dira.

7.3. Klub bakoitzak bere aurre izen-emateak bidaliko ditu (ohiko posta zerbitzua, posta elektronikoa edo faxa) dagokion Federazioari (Euskadikoa edo Nafarroakoa). Hauek jasotzeko epea martxoaren 13ko (asteartea) 10:00etan amaitzen da, eta ez dira ordu eta egun honen ostean jasotakoak onartuko.

**7.4. Araudi honetako 6. puntuan jasotako parte-hartze baldintzak betetzen ez badira izenemateetan klubek ez dute abisurik jasoko, eta beraiek izango dute igerilariaren edota bere erreleboaren parte hartzeko ezintasunaren erantzule bakarrak. Federazio antolatzaileak ez dira baldintzak ez betetzeak ekar ditzakeen gastuen erantzule izango.**

7.5. EIF-FVN edo FNN-NIF-ek izen emateen behin-behineko zerrenda bat argitaratuko dute bere webgunean ([www.eif-fvn.org](http://www.eif-fvn.org) edo [www.fnn-nif.com](http://www.fnn-nif.com)) martxoaren 14an, asteazkena. Akatsik balego zerrendotan EIF-FVN edo FNN-NIF-ri eman behar zaio berri martxoaren 15eko

12:00ak baino lehen, osteguna. Momentu horretatik aurrera ez da onartuko inolako erreklamaziorik.

7.6. Txapelketa EAE-n jokatzeko bada, EIF-FVN Federazioaren barruan dauden klubek izenemate gastuen kontzeptupean txapelketaren garapenaren gastuen banaketa proportzionala ordaindu beharko dute izenemate guztien artean, Asanbladak hartutako akordioa dela eta.

## **8. TXAPELKETA FORMULA**

8.1. Serieak marken arabera osatuko dira, jaiotze-urtea kontuan hartu gabe.

8.2. Erlojuaren aurkako sistemaren bidez igeri egingo da.

## **9. BAJAK ETA ERRELEBOEN ORRIAK**

9.1. Bajak eta erreleboen orriak idatziz eta inprimaki ofizialetan komunikatuko dira. Hauek egoki beteta eman beharko dira txapelketako idazkaritzan sesio bakoitza baino ordu erdi lehenagora arte.

9.2. Bajak talde bakoitzeko ordezkari edo entrenatzaileak (txapelketa honetarako baimenduak izan beharko dute) eman beharko ditu, seriearen zenbakia, igerilariaren izena eta kalea zehaztuz.

**9.3. Igerilari batek, izena emana duen proba batera ez badu bere burua aurkezten, baja aurreko puntuan azaldu bezala aurkeztu gabe, ezin izango du sesio horretako beste probetan parte hartu (erreleboetakoetan ere ez) eta ezin izango da ordezkatu.**

9.4. Parte-hartzaileen zerrenda publikatu ondoren aurkeztutako bajek 2 euroko isuna izango dute. Igerilari batek ez badu bere burua aurkezten proba batera (epe eta forma egokian baja aurkeztu gabe), bere klubak 10 euroko isuna ordaindu beharko du.

## **10. SAILKAPENAK ETA PUNTUAZIOAK**

10.1. Proba bakoitzeko JUNIOR mailako sailkapen bat osatuko da.  
Proba bakoitzeko ABSOLUTU mailako sailkapen bat osatuko da.

10.2. JUNIOR mailako puntukako sailkapen bana egingo dira bat gizonentzat, bat emakumeentzat eta beste bat guztiak kontuan hartuta.

ABSOLUTU mailako puntukako sailkapen bana egingo dira bat gizonentzat, bat emakumeentzat eta beste bat guztiak kontuan hartuta.

10.3. Proba bakoitzeko lehenengo 16 sailkatuek puntuatuko dute, beti ere eskatutako gutxienera egiten badute. Puntuazioa 19, 16, 14, 13, 12... izango da 1 puntura arte. Erreleboek puntuazio bikoitza izango dute.

## **11. GARAIKURRAK ETA SARIAK**

11.1. JUNIOR mailako proba bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuek domina bana jasoko dute. ABSOLUTU mailako proba bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuek ere, domina bana jasoko dute.

11.2. Garaikurra jasoko dute JUNIOR mailako guztien sailkapeneko lehenengo hiru klub sailkatuek, JUNIOR mailako gizonen klub garaileak eta JUNIOR mailako emakumeen klub garaileak.

Garaikurra jasoko dute ABSOLUTU mailako guztien sailkapeneko lehenengo hiru klub sailkatuek, ABSOLUTU mailako gizonezkoen klub garaileak eta ABSOLUTU mailako emakumezkoen klub garaileak.

11.3 300 euroko sari bana emango zaie igerilari onenei gizonezkoetan eta emakumezkoetan, taula alemaniarraren arabera puntuazioa kontuan hartuta, beti ere 860 puntuak gainditzen badituzte buruz buruko edozein probetan.

## **12. ZIGORRAK ETA AZKEN OHARRA**

12.1. EIF-FVN/FNN-NIF federazioek egokien deritzeten zigorrak ezar ditzakete gutxienezkotan edota beste edozein betebeharreran datuak faltsutu direla egiaztatzen bada.

12.2. EIF-FVN/FNN-NIF federazioek Txapelketako Zuzendari bat izendatuko dute txapelketa honetarako, bera izango da txapelketako aginte nagusia, bai txapelketaren antolaketan eta baita erreklamazioetan, txapelketako Epaila Nagusiaren agintean interferentziarik egiten ez dutenean.

12.3. Araudi honetan aurreikusita ez dagoena, EIF-FVN edo FNN-NIF federazioaren (txapelketa jokatzeko den lekuaren arabera), edo bere kasuan, RFEN-en txapelketa araudi orokorraren bitartez arautuko da.

12.4.- Federazioek aukera dute bere babesleei kirol-materiala saltzeko stand bat jartzen uzteko.